

MUSIKA
MÚSICA

7

IRAILA SEPTIEMBRE
LARUNBATA SÁBADO

20:00 ARETOA SALA: MUXIKEBARRI ZENTROA



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA



EGITARAUUA

PROGRAMA

WOLFGANG AMADEUS MOZART (1756 - 1791) (14')

Cosí fan tutte, Obertura K. 588

Adagio biolin eta orkestrarako Mi Maiorrean KV. 261

Adagio para violín y orquesta en Mi Mayor KV. 261

Itsasne Alzola, violina / violín

ANTONIN DVORAK (15')

7. kondaira La Maiorrean Op. 59

Leyenda nº 7 en La Mayor Op 59

Erromantza biolin eta orkestrarako fa minorrean Op. 11

Romanza para violín y orquesta en fa menor Op. 11

Itsasne Alzola, violina / violín

WOLFGANG AMADEUS MOZART (1756 - 1791) (31')

41. sinfonia Do Maiorrean K. 551 "Jupiter"

Sinfonía nº 41 en Do Mayor K. 551 "Jupiter"

I. Allegro vivace

II. Andante cantabile

III. Allegretto

IV. Molto allegro

Iraup. / Dur: 80' (g.g.b./aprox)

Jorge Yagüe ZUZENDARIA

Jorge Yagüe Leonesa Gazte Orkestrako (JOL) zuzendari titular eta artistikoa da 2019tik.

2022/23 denboraldiko konpromiso profesionalen artean, honako hauek nabarmentzen dira: RTVEko Orkestrarekin egindako debuta, "Fellow Conductor" gisa parte hartu izana Marylandeko NOI Jaialdirako, Marin Alsop gonbidatua izan zelarik; Viena Opera Festival Orkestrarekin batera "Cosque fan tutte" lanaren zatiak zuzentzea; eta Berner Symphonieorchesterrekin (Suitza), Thessaloniki State Symphony Orkestrarekin (Grezia) eta Hradec-Králové Philharmonic Orkestrarekin (Txekiar Errepublika) egindako lehen kontzertua.

Gaur egun, Jorgek orkestra-zuzendaritzako masterra egiten jarraitzen du Zürcher Hochschule der Künste (Zürich) ikastetxean, Johannes Schlaefli eta Christoph-Mathias Müller maisuen klasean. Aldez aurretik, Katarina Gurska Goi Mailako Zentroan (Madril) egin zituen ikasketak, Borja Quintas maisuaren eskutik, eta Accademia Chigianan (Siena) prestakuntza handitu zuen, Daniele Gatti eta Luciano Acocella maisuekin batera.

Azken urteotan, Pablo González eta Álvaro Albiach maisuak funtsezko bi figura izan dira Yagüeren garapen musikalean, eta sarritan haiiek batera lan egin du zuzendari laguntzaile gisa.

Yagüek hainbat talde zuzendu ditu, hala nola Espainiako Gazte Orkestra Nazionala (JONDE), Janax ek Philharmonic Ostrava, Extremadurako Orkestra, L'Orchestra Senzaspine, Kanaria Handiko Filarmonikoa, Hradec-Králové Philharmonie edo New Directions Ensemble; hainbat herrialdetan arituz: Txekiar Errepublika, Estatu Batuak, Austria, Grezia, Suitza, Italia, Portugal edo Suedia. Era berean, Espainiako geografiako agertoki garrantzitsuenetako batzuetara igo da, hala nola Auditorio Nacionalera (Madril), Manuel Rojas Kongresu Jauregira (Badajoz), Salamancako Kongresu Jauregira, Teatro Canónigosera (Segovia), Ciudad de León Auditoriumera edo Cibeles Jauregira (Madril).

Aldi berean, ohiko jarduera ere egiten du zuzendari laguntzaile gisa, eta besteak beste JONDE, OJA, JORCAM edo OEX orkestrek gonbidatzen dute.

Yagüek honako maisuen irakaspenak eta aholkuak jaso ahal izan ditu: Ole Kristian Ruud, Marin Alsop, Nicolás Pasquet, Baldur Brönnimann, Nuno Coelho, Toby Purser, Tomas Netopil, Andrés Salado, James Ross, Vladimir Ponkin, Mark Heron, César Viana, Rodolfo Fischer, Bruno Aprea, Guy Braunstein edo Kuzma Bodrov.

Era berean, Musik-Akademie Basel, NOI Festival & Academy (Baltimore), Royal Northern College of Music (Manchester), Aurora Chamber Music Festival (Stockholm) edo Euterpe Fundazioa bezalako erakundeek hobekuntza-masterclassak jasotzeko hautatua izan da.

Zuzendari gisa ibili aurretik, Yagüek 7 urterekin ekin zion piano-jotzaile prestakuntzari, eta Silvia Otero eta Mercedes Lecea maisu-maistrekin trebatu zen. Azkenik, Nino Kereslidze irakaslearen babespean, Katarina Gurska Goi Mailako Zentroan amaitu zituen Goi Mailako Ikasketak, eta kalifikazio altuenak lortu zituen. Orkestrarekin bakarları gisa, Beethovenen 3 zenbakiko Kontzertua, Haydnen Re maiorreko Kontzertua eta Schumannen Kontzertua interpretatu ditu.

Zuzendaritzako eta pianoko goi-mailako ikasketetan ari bitartean, Madrilgo Erkidegoko Bikaintasun Beka eta KG Fundazioaren Talentuari Beka eman dizkiote behin baino gehiagotan. Gaur egun, Harmonian oinarritutako Mundua Fundazioaren beka du.



Jorge Yagüe DIRECTOR

Jorge Yagüe es desde 2019 director titular y artístico de la Joven Orquesta Leonesa (JOL).

Entre sus compromisos profesionales de la temporada 2022/23 destacan su debut con la Orquesta de RTVE, su participación como 'Fellow Conductor' para el NOI Festival de Maryland siendo invitado por Marin Alsop, dirigir fragmentos de 'Così fan tutte' junto a la Viena Opera Festival Orchestra o su debut en concierto con la Berner Symphonieorchester (Suiza), la Thessaloniki State Symphony Orchestra (Grecia) y la Hradec-Králové Philharmonic Orchestra (República Checa).

Actualmente Jorge continúa su formación cursando un Máster en dirección de orquesta en la Zürcher Hochschule der Künste (Zúrich), en la clase de los maestros Johannes Schlaefli y Christoph-Mathias Müller. Previamente realiza sus estudios en dirección en el Centro Superior Katarina Gurska (Madrid) de la mano del maestro Borja Quintas, ampliando su formación en la Accademia Chigiana (Siena) junto a los maestros Daniele Gatti y Luciano Acocella.

Durante los últimos años los maestros Pablo González y Álvaro Albiach han sido dos figuras esenciales en el desarrollo musical de Yagüe, trabajando frecuentemente junto a ellos como director asistente.

Yagüe ha dirigido agrupaciones de la talla de la Joven Orquesta Nacional de España (JONDE), Janáček Philharmonic Ostrava, Orquesta de Extremadura, L'Orchestra Senzaspine, Filarmónica de Gran Canaria, Hradec-Králové Philharmonie o el New Directions Ensemble; en países como República Checa, Estados Unidos, Austria, Grecia, Suiza, Italia, Portugal o Suecia. Igualmente se ha subido a algunos de los escenarios más importantes de la geografía española, tales como el Auditorio Nacional (Madrid), Palacio de Congresos Manuel Rojas (Badajoz), Palacio de Congresos de Salamanca, Teatro Canónigos (Segovia), Auditorio Ciudad de León o Palacio de Cibeles (Madrid).

Paralelamente, también desarrolla una actividad habitual como director asistente, siendo invitado por orquestas como la JONDE, la OJA, la JORCAM o la OEX.

Yagüe ha podido recibir lecciones y consejos de maestros como Ole Kristian Ruud, Marin Alsop, Nicolás Pasquet, Baldur Brönnimann, Nuno Coelho, Toby Purser, Tomas Netopil, Andrés Salado, James Ross, Vladimir Ponkin, Mark Heron, César Viana, Rodolfo Fischer, Bruno Aprea, Guy Braunstein o Kuzma Bodrov.

Asimismo, ha sido seleccionado para recibir masterclass de perfeccionamiento por entidades como la Musik-Akademie Basel, el NOI Festival & Academy (Baltimore), la Royal Northern College of Music (Manchester), el Aurora Chamber Music Festival (Estocolmo) o la Fundación Eutherpe.

Previamente a su andadura como director, Yagüe inicia su formación como pianista a la edad de 7 años, formándose con las maestras Silvia Otero y Mercedes Lecea. Finalmente, bajo la tutela de la maestra Nino Kereselidze finaliza sus Estudios Superiores en el Centro Superior Katarina Gurska, obteniendo las más altas calificaciones. Como solista con orquesta, ha interpretado el Concierto no 3 de Beethoven, el Concierto en Re Mayor de Haydn y el Concierto de Schumann.

Mientras realiza sus Estudios Superiores en dirección y piano, le son concedidas en varias ocasiones la Beca de Excelencia de la Comunidad de Madrid, así como la Beca al Talento de la Fundación KG. Actualmente goza de la beca de la Fundación Mundo en Armonía.



Itsasne Alzola BIOLINA

Itsasne Alzola Garamendi 1997ko martxoaren 16an jaio zen Amorebieta-Etxanon (Bizkaia), eta txikitatik ezagutu zuen musikarekiko grina. Hiru urterekin biolina jotzen hasi zen Maria Madruren gidaritzapean. Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioan jarraitu zuen, Maria Madrurekin eta Ainhoa Agudorekin ikasten, eta geroago Musikenen sartu zen. Bertan, biolinean espezializatu zen Aitzol Iturriagagoitiarekin. 2019an, bere gradua osatu eta graduondoko bat egin zuen Musikenen.

2020an, Bernan (Suitza) Master Performance baterako hautatu zuten, Tianwa Yangkin, eta 2022an amaitu. 2023an, Bernako eta Bieleko Orkestra Sinfonikoan akademista izan zen, Tianwa Yangkin hobetzen jarraitzen zuen bitartean. Gaur egun, Pedagogia Masterra egiten ari da Bernako Hochschule der Künste eskolan.

Itsasnek hainbat lehiaketa irabazi ditu, besteak beste, 2012ko Euskadiko Gazte Musikalen IV. Lehiaketako lehen saria eta 2013ko Jugend Musiziert eskualdeko lehiaketa. Juan Crisostomo Arriaga Kontserbatorioko orkestrako bakarlaria eta kontzertinoa izan da, eta besteak beste EIO, JOL, EGO, BIOS eta JONDE orkestretan parte hartu du, Giancarlo Guerreren zuzendaritzapean Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin elkarlanean.

2017an, Kantometric 's Trio taldearekin kontzertua eskaini zuen Kutxa Fundazioaren ekitaldi batean, Donostian. 2022an, Zornotzako Eleizetan Jaialdian aritu zen, Trio Alzolarekin, eta 2023an, Vinhaiseko (Portugal) Pazko Kontzertuan, HARTZA Duorekin, Francisco Fernandesekin batera sortutako proiektuarekin. 2021ean eta 2022an Bizkaiko Foru Aldundiaren beka jaso ondoren, Itsasnek artista nabarmenekin lan egin du, besteak beste, Krzysztof Urbakski, Kian Soltani, Giancarlo Guerrero, Corina Belcea, Patrick Jüdt, Enrico Onofri, Antonio Meneses, Simone Lamsma, Eduardo Portal, Antoni Ros Marbà, Manuel Hernandez-Silva, Andoni Mercero, Pedro Halffter eta Pavel Vernikovekin.



Itsasne Alzola VIOLÍN

Itsasne Alzola Garamendi, nacida el 16 de marzo de 1997 en Amorebieta-Etxano (Bizkaia), descubrió su pasión por la música desde muy pequeña. A los tres años comenzó a tocar el violín bajo la guía de María Madru. Continuó su formación en el Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga de Bilbao, estudiando con María Madru y Ainhoa Agudo, y más tarde ingresó en Musikene, donde se especializó en violín con Aitzol Iturriagagoitia. En 2019, completó su grado y realizó un posgrado en Musikene.

En 2020, fue seleccionada para un Master Performance en Berna, Suiza, con Tianwa Yang, finalizándolo en 2022. Durante 2023, fue academista en la Orquesta Sinfónica de Berna y Biel, mientras seguía perfeccionándose con Tianwa Yang. Actualmente, cursa un Máster de Pedagogía en la Hochschule der Künste de Berna.

Itsasne ha ganado varios concursos, incluyendo el primer premio en el IV Concurso Juventudes Musicales de Euskadi en 2012 y el concurso regional Jugend Musiziert en 2013. Ha sido solista y concertino de la orquesta del Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga y ha participado en orquestas como EIO, JOL, EGO, BIOS, y JONDE, colaborando con la Bilboko Orkestra Sinfonikoa bajo la dirección de Giancarlo Guerrero.

En 2017, ofreció un concierto con Kantometric's Trio en un evento de la Fundación Kutxa en Donostia. En 2022, actuó en el Festival Eleizetan de Amorebieta con Trío Alzola, y en 2023 en el concierto de Pascua de Vinhais (Portugal) con HARTZA Duo, proyecto que cofundó con Francisco Fernandes. Becada por la Diputación Foral de Bizkaia en 2021 y 2022, Itsasne ha trabajado con destacados artistas como Krzysztof Urbański, Kian Soltani, Giancarlo Guerrero, Corina Belcea, Patrick Jüdt, Enrico Onofri, Antonio Meneses, Simone Lamsma, Eduardo Portal, Antoni Ros Marbà, Manuel Hernandez-Silva, Andoni Mercero, Pedro Halffter y Pavel Vernikov.



Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Bilbao Orkestra Sinfonikoak 1922ko martxoaren 8an eman zuen bere lehenengo kontzertua, Arriaga Antzokian, Armand Marsicken zuzendaritzapean. Bizkaiko gizarte zibilaren bultzadari esker sortu zen, eta, geroztik, harreman estua dauka Bizkaiarekin. Horren isla da, hain zuzen ere, gaur egun gure Denboraldi Sinfonikoak 2.200 abonatu baino gehiago izatea.

Sortu zenetik, zuzendari titular garrantzitsuak izan ditu: Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara, Juanjo Mena, Günter Neuhold, eta Erik Nielsen.

BOSeK hainbat etapa bizi izan ditu: sarritan egiten zituen birak direla-eta, de facto penintsulako iparraldeko orkestratzat hartzen zuten garaitik hasi, eta hurbilagoko nazioarteko zabalkundera; horri esker, San Petersburgon, Tokion, Japoniako biran, eta, erregulartasunez, Frantziako zenbait jaialditan aritu izan da. 2019ko urtarrilean, Omango Royal Opera Housen egin ziren Madama Butterflyren emanaldietan parte hartu zuen.

2022an, orkestraren mendeurrenaren harira, Hiribilduko Udalak «Bilboko enbaxadore» izendatu du eta Sabino Arana Saria eman diote. Orkestraren 90. urteurrenean, Schönbergen Gurrelieder lanen zuzeneko kontzertuak grabatu eta editatu zituen Thorofon etxeak, gure orkestrak Günter Neuholden zuzendaritzapean eskainitakoak.

Euskalduna Jauregian egiten den kontzertu-denboraldi erregularraz gain (hori da orkestraren egoitza, hain zuzen ere), BOSeK ganbera-denboraldiak eskaintzen ditu Bilbon eta Bizkaian, eta lan pedagogiko garrantzitsua egiten du, Kontzertu Didaktikoak eta Kontzertuak Familian ekimenen bitartez; gainera, musikaren bidezko gizarteratze-jarduerak ere egiten ditu. Modu erregularrean hartzen du parte orkestra gisa OLBEren operetan, eta lankidetza-ildoak ditu Guggenheim Bilbao Museoarekin, Bilboko Arte Ederren Museoarekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Bilboko Arriaga Antzokiarekin batera egiten dituen zenbait programatan. Horrez gain, euskal taldeekin batera zuzeneko kontzertuak eskaintzen eta diskoak grabatzen ditu.

Bere katalogo diskografikoaren barruan, BOSeK euskal musikari buruzko bilduma interesarria grabatu du Naxos etxearentzat, Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga, Sarasate eta Escuderori eskainita. Era berean, J. Rodrigo eta T. Takemitsu konpositoreen obrak grabatu ditu EMI JAPAN etxearentzat, Kiyoshi Shomura gitarra-jotzaile japoniararekin eta Juanjo Mena maisuaren zuzendaritzapean.

BOSen jarduera bere zale ugarien babesari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren ekarpenei esker garatzen da.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

La Bilbao Orkestra Sinfonikoa ofreció su primer concierto el 8 de marzo de 1922 en el Teatro Arriaga, bajo la batuta de Armand Marsick. Nació del impulso de la propia sociedad civil de Bizkaia, un territorio con el que mantiene una íntima relación que hoy día queda reflejada en los más de 2.200 abonados a su Temporada Sinfónica.

Desde su fundación ha tenido como directores titulares a Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pifano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara, Juanjo Mena, Günter Neuhold y Erik Nielsen.

La BOS ha vivido diferentes etapas, desde los años en los que por sus frecuentes giras era considerada de facto la orquesta del norte de la península, hasta la más reciente expansión internacional que le ha llevado a actuar en San Petersburgo, Tokio, en gira por Japón y de manera regular en importantes festivales franceses. En enero de 2019 participó en las representaciones de «Madama Butterfly» ofrecidas en la Royal Opera House de Omán.

En 2022 y con motivo de su centenario, ha sido nombrada «embajadora de Bilbao» por el ayuntamiento de la Villa y recibió el Premio Sabino Arana. En su 90 aniversario editó en Thorofon la grabación en directo de los Gurrelieder de Schönberg, bajo la dirección de Günter Neuhold.,

Además de su temporada regular de conciertos en el Palacio Euskalduna, sede de la orquesta, la BOS ofrece temporadas de música de cámara en Bilbao y en Bizkaia, una importante labor pedagógica a través de los Conciertos didácticos y En familia, y desarrolla actividades de inclusión social mediante la música. Participa regularmente como orquesta de foso en las óperas de la ABAO, y mantiene líneas de colaboración en programas conjuntos con el Museo Guggenheim, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Universidad de Deusto y Teatro Arriaga de Bilbao. Además de colaborar con grupos vascos en conciertos en directo y en grabación de discos.

Dentro de su catálogo discográfico, la BOS ha realizado una interesante colección de música vasca para Naxos dedicada a Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga, Sarasate y Escudero. También ha grabado para el sello EMI JAPAN obras de los compositores J. Rodrigo y T. Takemitsu, con el guitarrista japonés Kiyoshi Shomura y la dirección del Maestro Juanjo Mena.

La actividad de la BOS se desarrolla gracias al apoyo de sus numerosos aficionados, y a las aportaciones de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao.

Getxoko Kultur Etxea
Aula de Cultura de Getxo

Basagoiti etorbidea, 77
(Muxikebarri zentroa)

48991 Getxo (Bizkaia)

94 466 01 23

kulturetxea@getxo.eus

www.getxo-kultura.eus

